

GIG 65

SAN BLASKO HARROBIA

BALIO INTRINTSEKOA: **1,75**BALIAGARRITASUN-MAILA: **3,25**KALTEBERATASUN-MAILA: **1,25**

GIGaren DESKRIBAPEN LABURRA

Kareharri urgondar masiboen ustiapen txikia (Behe Kretazeoa). Oinplano angeluzuzeneko lubaki batean induskatuta, kareharria ateratzen zen bloketan, askotariko erabileretarako (eraikuntza, harri-lubetak, eta abar).

Ustiapen-aukera ikusgarria du, hainbat mailatako bankuak baititu, eta ederki bistaratzen du harkaitz-blokeak erazteko metodoa.

Harrobi horretan, ebaketa-tresnak erabili ohi ziren (zerrak edo hari diamanteduna), lehergaiak baliatu ordez. Horregatik, ugariak dira azalera nabarmen leunak eta biribilduak; haietan, erraz asko ikus daitezke Behe Kretazeoko itsaso beroetan eta azalekoetan bizi ohi ziren ale askoren eta askoren fosilak — hala nola erredestak, koralak, algak eta, oro har, arrezifeak eratzen zituztenak—.

NOLA BERTARATU

Mutrikutik Olatz auzora doan GI-3562 errepidea hartu behar da (44. eta 66. GIGak). Handik bi kilometrorra, hormigoizko pista bat dago eskuinean, eta, handik, harrobiko zabalgunera iritsiko gara 300 metro pasatxoan.

GIG HAU IKUSTEKO LEKURIK ONENA

In situ.




San Blas arrobiko ikupegoi orokorra.



UTM KOORDENATUAK (30N EREMUA):

X = 548683 / Y = 4794337 / Z = 229



Arrobiaren aurrealdea.